

BERRI OROKORRAK

2025eko apirilaren 11n 28. zenbakia

LH 6. mailako azoka solidarioaren emaitzak


Martxoan egin genuen azokan lortutako dirua, dakizuenez, DYA-ri emango diogu. Guztira, 1.136,15 € lortu genituen. DYA-ko produktuen salmentaren bidez, 688 € lortu genituen: bestalde, tortila eta bizkotxoen salmentaren bidez, 448,15 €. Eskerrak eman nahi dizkizuegu azokan parte hartu duzuen guztiori.



Esker onez, LH 6ko ikasleak

Bizikletak kandatzeke gune berria

Kanpo-espazioetako lan taldeak, Ageri-alde inguruan bizikletak kandatzeke gune berria jarri dela jakinarazi nahi du. [Hemen kokapena](#)



Izan Hartxintzar Eguna

Maiatzaren 10ean, Zarauzko Salbatore Mitxelena ikastolaren aldeko elkartasun-eguna antolatu da. Hezkuntza Sailak ezarritako isunari erantzuteko elkartasun ekimena izango da eta hainbat ekintza antolatu dira, besteak beste, esperimentazio guneak, malabarak, trebetasun jolasak, bertso-triki poteoa, bazkaria,... [Ikus egitaraua](#).



Zarautzko Ikastolak boluntarioak eskatu ditu egun horretarako; mahaiak jartzeko, janaria berotu eta zerbitzatzeko edo mahaiak jasotzeko. Horretarako, [galdetegia bete](#), mesedez. Bazkari-txartelak Udarregi Ikastolako idazkaritzan salgai dituzue. Alergia, intolerantzia edo antzeko egoerarik duen inor balego, [ondorengo galdetegia](#) bete dezake bazkaria egokitu ahal izateko.

Animatu parte hartzera!!

Udajolas udalekua

Aurten ere, iritsi da, Udajolasen izena emateko unea. Usurbilgo 4-12 (HH3-LH6) urte bitarteko haur eta gaztetxoentzat udalekua da, aisialdia giro alai eta dibertigarrian euskaraz pasatzeko aukera. Informazio gehiago [hemen](#).



Udako aisialdi-eskaintza, ZIRIMOLA

Aurten ere, Zirimola aisialdi-taldeak, udako eskaintza zabala aurkezten du. [Hemen](#) aurkituko duzue, eskaintza guztiaren informazio xehetua.



HAUR HEZKUNTZA

Zorriak

HH 3, 4 eta 5eko ikasle batzuegan zorriak sumatu ditugu.

Norberak bere seme/alabarekin egoera horretan ohikoak diren higiene neurriak hartzea eskatu nahi dizuegu.

NEURRI HORIEK ERAGINKORRAGOAK IZAN DAITEZEN SAIATU DENOK OPOR EGUN HAUETAN EGITEN TRATAMENDUA



Baso eskola


Oporretatik bueltatzen garen lehenengo astean EZ DUGU BASO ESKOLAKO SAIORIK IZANGO HH3 eta HH5ekoek.



LEHEN HEZKUNTZA

Ikastola-Eguneko bazkaria antolatzeko deialdia

Ekainaren 7an Ikastola Eguna ospatuko dugu eta, urtero bezala, bazkaria antolatzeko gurasoen laguntza ezinbestekoa dugu. Astelehenean bilera egin genuen eta bertan, lantaldeak osatzen hasi ginen. Lantaldereen batean [izena ematera](#) gonbidatzen zaitugu. Horretarako bete ondorengo inprimakia.



DBH

DBH3 - Baionara irteera

Dakizuen bezala, datorren apirilaren 28an Baionara joango gara ikasbidaiako ekintza bat egitera. Horretarako, beharrezkoa da ikasle guztiek Europako Osasun Txartela eguneratuta izatea. Zuen seme-alabek txartela izango ez balute, edo iraungita egongo balitz, lehenbaitlehen ateratzea edo berria eskatzea eskertuko genuke. Txartela doakoa da eta mediku asistentzia estaltzen du Europako hainbat herrialdeetan. Ikastolako ikasle istripu polizarekin istripu baten aurrean estaldura badago, baina istripua ez den gainontzeko kasuetarako balioko luke. Honako [esteka honetan](#) eskatu edo berritu dezakezue.



Eskola txertaketa

Apirilaren 29an Osakidetzatik, eskola txertaketa programa barruan dauden honako txertoak jartzera etorriko dira:

- 1) Difteria Tetanosarena DBH 4. mailako ikasle guztiei.
- 2) GPB (papilomabirusa) DBH4. mailako eta DBH2. mailako mutilei.



Zorriak

DBH 4ko ikasle batzuegan zorriak sumatu ditugu.

Norberak bere seme/alabarekin egoera horretan ohikoak diren higiene neurriak hartzea eskatu nahi dizuegu.

NEURRI HORIEK ERAGINKORRAGOAK IZAN DAITEZEN SAIATU DENOK
OPOR EGUN HAUETAN EGITEN TRATAMENDUA

